

# **EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO AUZITEGI NAGUSIKO GOBERNU-SALAKO OSOKO BILKURAK 2024KO MAIATZAREN 31N HARTUTAKO ERABAKIAK**

## **BERTARATUAK:**

Ignacio Jose Subijana Zunzunegui **Lehendakari jauna.**

Luis Angel Garrido Bengoechea jn.  
Mercedes Guerrero Romeo and.  
Reyes Goenaga Olaizola and.  
Alfonso Alvarez-Buylla Naharro jn.  
Emilio Lamo de Espinosa Vazquez de Sola jn.  
Ines Soria Encarnacion and.  
Pedro Santiago Romero Buck-Arstad jn.  
M<sup>a</sup>. Belen Gonzalez Martin and.  
Ariane Tapia Trueba and.

**Eta Gobernu-idazkaria,** Blanca Rosa Barbero Blanco and.

## **LEHENENGOA.- AURREKO BILERAREN AKTA IRAKURRI ETA ONARTZEA.**

Bileraren akta irakurri ondoren, aho batez onartu da.

## **BIGARRENA.- AURREKO BILERAN HARTUTAKO ERABAKIAK BETEARAZTEA.**

Aurreko bileran hartutako erabakiak bete direla jakinarazten zaio Osoko Bilkurari eta jakinaren gainean geratu da.

### **1.- Magistratu eta Epaileak**

#### **1.1.- 2023. URTEKO MEMORIA ONARTZEA**

Osoko Bilkurak jakin du 2023. urteari dagokion Urteko Azalpen Memoria egin dela. Bertan, Autonomia Erkidego honetako Justizia Administrazioaren funtzionamenduari buruzko gogoetak jasotzen dira, eta, Botere Judizialaren Lege Organikoaren 152.1-9 artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz, aho batez erabaki du memoria hori onartzea eta Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiari eta Autonomia Erkidegoko organo judizial guztiei bidaltzea. Onartu egin du eta Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiari igorri dio, bakarrak ez direla agerian uzten duten unitate judizial berriak testuinguruan kokatu ondoren.

## **1.2.- KARRERA JUDIZIALAREN 2024. URTEKO OPOR-PLANAK**

### **ARABAKO OPOR-PLANAK**

#### **ARABAKO PROBINTZIA AUZITEGIA**

Arabako Probintzia Auzitegiko magistratuek egindako opor-planaren berri eman zaio osoko bilkurari.

Osoko Bilkurak bere horretan onartu du proposatutako opor-plana.

#### **VITORIA-GASTEIZKO ZIGOR-ARLOKO EPAITEGIAK (ARABA)**

Oporren planari buruz hitz egiteko 2024ko maiatzaren 14ean egindako Vitoria-Gasteizko Zigor-arloko Epaileen Batzarraren edukiaren berri eman zaio Osoko Bilkurari.

Osoko Bilkurak proposatutako opor-plana onartzea erabaki du.

Gobernu Organoen uztailaren 26ko 1/2000 Erregelamenduaren 71.2 artikuluekin bat etorriz, bidal bedi akta Botere Judizialaren Kontseilu Nagusira, jakinaren gainean egon dadin eta legezkotasuna kontrola dezan.

#### **VITORIA-GASTEIZKO LEHEN AUZIALDIKO ETA MERKATARITZA-ARLOKO EPAITEGIAK (ARABA).**

Oporren planari buruz hitz egiteko 2024ko maiatzaren 9an egindako Vitoria-Gasteizko arlo Zibileko Epaileen Batzarraren edukiaren berri eman zaio Osoko Bilkurari.

Osoko Bilkurak proposatutako opor-plana onartzea erabaki du, Gasteizko Epaitegi Dekanoaren maiatzaren 29ko Gobernu Akordioan jasotakoaren arabera. Akordio horretan, 2024ko abuztuaren 6tik 16ra bitarteko aldiari dagozkion egonaldiak argitzen dira.

Gobernu Organoen uztailaren 26ko 1/2000 Erregelamenduaren 71.2 artikularekin bat etorritz, bidal bedi akta Botere Judizialaren Kontseilu Nagusira, jakinaren gainean egon dadin eta legezketasuna kontrola dezan.

VITORIA-GASTEIZKO ADMINISTRAZIOAREKIKO AUZIEN EPAITEGIAK (ARABA).

Oporren planari buruz hitz egiteko 2024ko apirilaren 25ean egindako Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzien arloko Epaileen Batzarraren edukiaren berri eman zaio Osoko Bilkurari.

Osoko Bilkurak proposatutako opor-plana onartzea erabaki du.

Gobernu Organoen uztailaren 26ko 1/2000 Erregelamenduaren 71.2 artikularekin bat etorritz, bidal bedi akta Botere Judizialaren Kontseilu Nagusira, jakinaren gainean egon dadin eta legezketasuna kontrola dezan.

VITORIA-GASTEIZKO (ARABA) INSTRUKZIOKO, ADINGABEEN ETA EMAKUMEAREN AURKAKO INDARKERIAREN ARLOKO EPAITEGIAK.

Oporren planari buruz hitz egiteko 2024ko maiatzaren 16an egindako Vitoria-Gasteizko Instrukzioko, Emakumearen aurkako Indarkeriaren arloko eta Adingabeen Epaileen Batzarraren edukiaren berri eman zaio Osoko Bilkurari.

Osoko Bilkurak proposatutako opor-plana onartzea erabaki du.

Gobernu Organoen uztailaren 26ko 1/2000 Erregelamenduaren 71.2 artikularekin bat etorritz, bidal bedi akta Botere Judizialaren Kontseilu Nagusira, jakinaren gainean egon dadin eta legezketasuna kontrola dezan.

VITORIA-GASTEIZKO (ARABA) LAN-ARLOKO EPAITEGIAK.

Oporren planari buruz hitz egiteko 2024ko maiatzaren 9an egindako Vitoria-Gasteizko Lan-arloko Epaileen Batzarraren edukiaren berri eman zaio Osoko Bilkurari.

Osoko Bilkurak proposatutako opor-plana onartzea erabaki du.

Gobernu Organoen uztailaren 26ko 1/2000 Erregelamenduaren 71.2 artikularekin bat etorritz, bidal bedi akta Botere Judizialaren Kontseilu Nagusira, jakinaren gainean egon dadin eta legezketasuna kontrola dezan.

AMURRIOKO EPAITEGIAK (ARABA)

Oporren planari buruz hitz egiteko 2024ko maiatzaren 21ean egindako Amurrioko (Araba) Epaitegietako Epaileen Batzarraren edukiaren berri eman zaio Osoko Bilkurari.

Osoko Bilkurak proposatutako opor-plana onartzea erabaki du.

Gobernu Organoen uztailaren 26ko 1/2000 Erregelamenduaren 71.2 artikuluekin bat etorriz, bidal bedi akta Botere Judizialaren Kontseilu Nagusira, jakinaren gainean egon dadin eta legezketasuna kontrola dezan.

## **BIZKAIKO OPOR-PLANAK**

**EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO AUZITEGI NAGUSIKO ARLO ZIBILEKO ETA ZIGOR-ARLOKO SALA.**

Auzitegi Nagusi honetako Arlo Zibileko eta Zigor-arloko Salako magistratuek egindako Opor-planaren berri eman zaio Salari.

Salak bere horretan onartu du proposatutako Oporren Plana.

**EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO AUZITEGI NAGUSIKO LAN-ARLOKO SALA.**

Justizia Auzitegi Nagusi honetako Lan-arloko Salako magistratuek 2024ko maiatzaren 21ean egindako Opor-planaren berri eman zaio osoko Bilkurari.

Osoko Bilkurak bere horretan onartu du proposatutako Oporren Plana.

**EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO AUZITEGI NAGUSIKO ADMINISTRAZIOAREKIKO AUZIEN SALA.**

Justizia Auzitegi Nagusi honetako Administrazioarekiko Auzien Salako magistratuek egindako Opor-planaren berri eman zaio osoko Bilkurari.

Osoko Bilkurak bere horretan onartu du proposatutako Oporren Plana.

## **BIZKAIKO PROBINTZIA AUZITEGIA**

Bizkaiko Probintzia Auzitegiko magistratuek egindako Opor-planaren berri eman zaio osoko Bilkurari.

Osoko Bilkurak bere horretan onartu du proposatutako Oporren Plana.

#### BILBOKO (BIZKAIA) LEHEN AUZIALDIKO EPAITEGIAK (EZ-ESPEZIALIZATUAK).

Oporren planari buruz hitz egiteko 2024ko maiatzaren 10ean egindako Bilboko Lehen Auzialdiko Epaile ez-espezializatuen Batzarraren edukiaren berri eman zaio Osoko Bilkurari.

Osoko Bilkurak proposatutako opor-plana onartzea erabaki du.

Gobernu Organoen uztailaren 26ko 1/2000 Erregelamenduaren 71.2 artikuluekin bat etorriz, bidal bedi akta Botere Judizialaren Kontseilu Nagusira, jakinaren gainean egon dadin eta legezketasuna kontrola dezan.

#### BILBOKO (BIZKAIA) INSTRUKZIOKO EPAITEGIAK.

Oporren planari buruz hitz egiteko 2024ko maiatzaren 15ean egindako Bilboko (Bizkaia) Instrukzioko Epaileen Batzarraren edukiaren berri eman zaio Osoko Bilkurari.

Osoko Bilkurak proposatutako opor-plana onartzea erabaki du.

Gobernu Organoen uztailaren 26ko 1/2000 Erregelamenduaren 71.2 artikuluekin bat etorriz, bidal bedi akta Botere Judizialaren Kontseilu Nagusira, jakinaren gainean egon dadin eta legezketasuna kontrola dezan.

#### BILBOKO (BIZKAIA) LEHEN AUZIALDIKO EPAITEGIAK (FAMILIAN ESPEZIALIZATUAK).

Oporren planari buruz hitz egiteko 2024ko maiatzaren 17an egindako Bilboko Lehen Auzialdiko Familia-epaileen Batzarraren edukiaren berri eman zaio Osoko Bilkurari.

Osoko Bilkurak bere horretan onartu du 2023ko maiatzaren 12ko gobernu-akordioan proposatutako Opor-plana.

Gobernu Organoen uztailaren 26ko 1/2000 Erregelamenduaren 71.2 artikuluekin bat etorriz, bidal bedi akta Botere Judizialaren Kontseilu Nagusira, jakinaren gainean egon dadin eta legezketasuna kontrola dezan.

#### BILBOKO (BIZKAIA) LAN-ARLOKO EPAILEEN BATZARRA.

Oporren planari buruz hitz egiteko 2024ko maiatzaren 8an egindako Bilboko (Bizkaia) Lan-arloko Epaileen Batzarraren edukiaren berri eman zaio Osoko Bilkurari.

Osoko Bilkurak proposatutako opor-plana onartzea erabaki du.

Gobernu Organoen uztailaren 26ko 1/2000 Erregelamenduaren 71.2 artikuluekin bat etorriz, bidal bedi akta Botere Judizialaren Kontseilu Nagusira, jakinaren gainean egon dadin eta legezketasuna kontrola dezan.

#### BILBOKO (BIZKAIA) ZIGOR-ARLOKO EPAITEGIAK.

2024ko otsailaren 27an egindako Bilboko (Bizkaia) Zigor-arloko Epaileen Batzarraren edukiaren berri eman zaio Osoko Bilkurari.

Osoko Bilkurak proposatutako opor-plana onartzea erabaki du.

Gobernu Organoen uztailaren 26ko 1/2000 Erregelamenduaren 71.2 artikuluekin bat etorriz, bidal bedi akta Botere Judizialaren Kontseilu Nagusira, jakinaren gainean egon dadin eta legezketasuna kontrola dezan.

#### BILBOKO (BIZKAIA) ADINGABEEN ETA ESPETXE-ZAINTZAKO EPAITEGIAK.

Oporren planari buruz hitz egiteko 2024ko maiatzaren 16an egindako Bilboko (Bizkaia) Adingabeen eta Espetxe-zaintzako Epaileen Batzarraren edukiaren berri eman zaio Osoko Bilkurari.

Osoko Bilkurak proposatutako opor-plana onartzea erabaki du.

Gobernu Organoen uztailaren 26ko 1/2000 Erregelamenduaren 71.2 artikuluekin bat etorriz, bidal bedi akta Botere Judizialaren Kontseilu Nagusira, jakinaren gainean egon dadin eta legezketasuna kontrola dezan.

#### BILBOKO (BIZKAIA) MERKATARITZA-ARLOKO EPAITEGIAK.

Oporren planari buruz hitz egiteko 2024ko maiatzaren 16an egindako Bilboko (Bizkaia) Merkataritza-arloko Epaileen Batzarraren edukiaren berri eman zaio Osoko Bilkurari.

Osoko Bilkurak proposatutako opor-plana onartzea erabaki du.

Gobernu Organoen uztailaren 26ko 1/2000 Erregelamenduaren 71.2 artikuluekin bat etorriz, bidal bedi akta Botere Judizialaren Kontseilu Nagusira, jakinaren gainean egon dadin eta legezketasuna kontrola dezan.

## BILBOKO (BIZKAIA) EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIAREN ARLOKO EPAITEGIAK.

Oporren planari buruz hitz egiteko 2024ko maiatzaren 15ean egindako Bilboko (Bizkaia) Emakumeen aurkako Indarkeriaren arloko Epaileen Batzarraren edukiaren berri eman zaio Osoko Bilkurari.

Osoko Bilkurak proposatutako opor-plana onartzea erabaki du.

Gobernu Organoen uztailaren 26ko 1/2000 Erregelamenduaren 71.2 artikuluekin bat etorritik, bidal bedi akta Botere Judizialaren Kontseilu Nagusira, jakinaren gainean egon dadin eta legezkotasuna kontrola dezan.

## BILBOKO (BIZKAIA) ADMINISTRAZIOAREKIKO AUZIEN EPAITEGIAK.

Oporren planari buruz hitz egiteko 2024ko maiatzaren 3an egindako Bilboko (Bizkaia) Administrazioarekiko Auzien Epaileen Batzarraren edukiaren berri eman zaio Osoko Bilkurari.

Osoko Bilkurak proposatutako opor-plana onartzea erabaki du.

Gobernu Organoen uztailaren 26ko 1/2000 Erregelamenduaren 71.2 artikuluekin bat etorritik, bidal bedi akta Botere Judizialaren Kontseilu Nagusira, jakinaren gainean egon dadin eta legezkotasuna kontrola dezan.

## BALMASEDAKO (BIZKAIA) EPAITEGIAK.

Balmasedako 2 zk.ko Epaitegiko epaile andreak 2024ko maiatzaren 21ean berak bakarrik egindako oporren planaren edukiaren berri eman zaio Osoko Bilkurari, oporren plan horretaz hitz egiteko.

Balmasedako 1 zk.ko Epaitegiko ordezkoko epailearen oporren plana egiteke dago, aldi baterako ezintasun bat ordezkatzeko ari delako.

Osoko Bilkurak proposatutako opor-plana onartzea erabaki du.

## BARAKALDOKO (BIZKAIA) EPAITEGIAK.

Oporren planari buruz hitz egiteko 2024ko maiatzaren 15ean egindako Barakaldoko (Bizkaia) Barruti Judizialeko Epaileen Batzarraren edukiaren berri eman zaio Osoko Bilkurari.

Osoko Bilkurak proposatutako opor-plana onartzea erabaki du.

Gobernu Organoen uztailaren 26ko 1/2000 Erregelamenduaren 71.2 artikuluekin bat etorriz, bidal bedi akta Botere Judizialaren Kontseilu Nagusira, jakinaren gainean egon dadin eta legezketasuna kontrola dezan.

#### **DURANGOKO (BIZKAIA) EPAITEGIAK.**

Oporren planari buruz hitz egiteko 2024ko apirilaren 30ean egindako Durangoko (Bizkaia) Barruti Judizialeko Epaileen Batzarraren edukiaren berri eman zaio Osoko Bilkurari.

Osoko Bilkurak proposatutako opor-plana onartzea erabaki du.

Gobernu Organoen uztailaren 26ko 1/2000 Erregelamenduaren 71.2 artikuluekin bat etorriz, bidal bedi akta Botere Judizialaren Kontseilu Nagusira, jakinaren gainean egon dadin eta legezketasuna kontrola dezan.

#### **GERNIKA-LUMOKO (BIZKAIA) EPAITEGIAK.**

Oporren planari buruz hitz egiteko 2024ko maiatzaren 8an egindako Gernika-Lumoko (Bizkaia) Epaileen Batzarraren edukiaren berri eman zaio Osoko Bilkurari.

Osoko Bilkurak proposatutako opor-plana onartzea erabaki du.

Gobernu Organoen uztailaren 26ko 1/2000 Erregelamenduaren 71.2 artikuluekin bat etorriz, bidal bedi akta Botere Judizialaren Kontseilu Nagusira, jakinaren gainean egon dadin eta legezketasuna kontrola dezan.

#### **GETXOKO (BIZKAIA) EPAITEGIAK.**

Oporren planari buruz hitz egiteko 2024ko maiatzaren 16an egindako Getxoko (Bizkaia) Epaileen Batzarraren edukiaren berri eman zaio Osoko Bilkurari.

Osoko Bilkurak proposatutako opor-plana onartzea erabaki du.

Gobernu Organoen uztailaren 26ko 1/2000 Erregelamenduaren 71.2 artikuluekin bat etorriz, bidal bedi akta Botere Judizialaren Kontseilu Nagusira, jakinaren gainean egon dadin eta legezketasuna kontrola dezan.

### **GIPUZKOAKO OPOR-PLANAK**

#### **GIPUZKOAKO PROBINTZIA AUZITEGIA**

Gipuzkoako Probintzia Auzitegiko magistratuek egindako Opor-planaren berri eman zaio osoko Bilkurari.



Osoko Bilkurak bere horretan onartu du proposatutako Oporren Plana.

DONOSTIA-SAN SEBASTIANEKO (GIPUZKOA) INSTRUKZIOKO, ADINGABEEN ETA EMAKUMEAREN AURKAKO INDARKERIAREN ARLOKO EPAITEGIAK.

Oporren planari buruz hitz egiteko 2024ko maiatzaren 8an egindako Donostia-San Sebastianeko (Gipuzkoa) Instrukzioko, Adingabeen eta Emakumeen aurkako Indarkeriaren arloko Epaileen Batzarraren edukiaren berri eman zaio Osoko Bilkurari.

Osoko Bilkurak proposatutako opor-plana onartzea erabaki du. Eta Donostiako Genero-indarkeriaren arloko Epaitegiko titularren eskaerari dagokionez, jakinarazten baita oporregatiko kanpo-ordezkapena ez dagoela sartuta Gobernu-sala honek 2023ko urriaren 27ko bilkuran ezarritako kanpoko ordezkapen-irizpideen artean.

Gobernu Organoen uztailaren 26ko 1/2000 Erregelamenduaren 71.2 artikuluekin bat etorriz, bidal bedi akta Botere Judizialaren Kontseilu Nagusira, jakinaren gainean egon dadin eta legezketasuna kontrola dezan.

DONOSTIA-SAN SEBASTIANEKO (GIPUZKOA)  
ADMINISTRAZIOAREKIKO AUZIEN EPAITEGIAK.

Oporren planari buruz hitz egiteko 2024ko maiatzaren 10ean egindako Donostia-San Sebastianeko Administrazioarekiko Auzien Epaileen Batzarraren edukiaren berri eman zaio Osoko Bilkurari.

Osoko Bilkurak proposatutako opor-plana onartzea erabaki du.

DONOSTIA-SAN SEBASTIANEKO (GIPUZKOA) LEHEN  
AUZIALDIKO ETA MERKATARITZA-ARLOKO EPAITEGIAK.

Oporren planari buruz hitz egiteko 2024ko maiatzaren 15ean egindako Donostia-San Sebastianeko (Gipuzkoa) Lehen Auzialdiko eta Merkataritza-arloko Epaileen Batzarraren edukiaren berri eman zaio Osoko Bilkurari.

Osoko Bilkurak proposatutako opor-plana onartzea erabaki du.

DONOSTIA-SAN SEBASTIANEKO (GIPUZKOA) ZIGOR-ARLOKO  
EPAITEGIAK.

Oporren planari buruz hitz egiteko 2023ko maiatzaren 10ean egindako Donostia-San Sebastianeko (Gipuzkoa) Zigor-arloko Epaileen Batzarraren edukiaren berri eman zaio Osoko Bilkurari.

Osoko Bilkurak proposatutako opor-plana onartzea erabaki du.

Gobernu Organoen uztailaren 26ko 1/2000 Erregelamenduaren 71.2 artikularekin bat etorriz, bidal bedi akta Botere Judizialaren Kontseilu Nagusira, jakinaren gainean egon dadin eta legezketasuna kontrola dezan.

#### DONOSTIA-SAN SEBASTIANEKO (GIPUZKOA) LAN-ARLOKO EPAITEGIAK.

Donostia-San Sebastianeko (Gipuzkoa) Lan-arloko Epaileek egindako Oporren Planaren berri eman zaio osoko Bilkurari.

Osoko Bilkurak proposatutako opor-plana onartzea erabaki du.

#### AZPEITIAKO (GIPUZKOA) EPAITEGIAK.

Oporren planari buruz hitz egiteko 2024ko maiatzaren 21ean egindako Azpeitiako (Gipuzkoa) Epaileen Batzarraren edukiaren berri eman zaio Osoko Bilkurari. Epaileen 1-2024 Lehiaketaren ebazpenaren ondorioz ez da aurkeztu Azpeitiko barruti judizialeko 2024ko Oporren Planaren proposamenik; biek utziko dute kargua Azpeitiko barruti judizialean, eta dagokien destinoan lanpostuaz jabetu ondoren aurkeztuko dute Oporren Plana.

Gobernu Organoen uztailaren 26ko 1/2000 Erregelamenduaren 71.2 artikularekin bat etorriz, bidal bedi akta Botere Judizialaren Kontseilu Nagusira, jakinaren gainean egon dadin eta legezketasuna kontrola dezan.

#### BERGARAKO (GIPUZKOA) EPAITEGIAK.

Oporren planari buruz hitz egiteko 2024ko maiatzaren 20an egindako Bergarako (Gipuzkoa) Epaileen Batzarraren edukiaren berri eman zaio Osoko Bilkurari.

Osoko Bilkurak proposatutako opor-plana onartzea erabaki du.

Gobernu Organoen uztailaren 26ko 1/2000 Erregelamenduaren 71.2 artikularekin bat etorriz, bidal bedi akta Botere Judizialaren Kontseilu Nagusira, jakinaren gainean egon dadin eta legezketasuna kontrola dezan.

#### EIBARKO (GIPUZKOA) EPAITEGIAK.

Eibarko (Gipuzkoa) Barruti Judizialeko Epaileek egindako oporren planaren berri eman zaio Osoko Bilkurari.

Osoko Bilkurak proposatutako opor-plana onartzea erabaki du.

#### IRUNGO (GIPUZKOA) EPAITEGIAK.

Oporren planari buruz hitz egiteko 2024ko apirilaren 24an egindako Irungo (Gipuzkoa) Epaileen Batzarraren edukiaren berri eman zaio Osoko Bilkurari.

Osoko Bilkurak proposatutako opor-plana onartzea erabaki du.

Gobernu Organoen uztailaren 26ko 1/2000 Erregelamenduaren 71.2 artikuluekin bat etorriz, bidal bedi akta Botere Judizialaren Kontseilu Nagusira, jakinaren gainean egon dadin eta legezkotasuna kontrola dezan.

### TOLOSAKO (GIPUZKOA) EPAITEGIAK.

Oporren planari buruz hitz egiteko 2024ko maiatzaren 21ean egindako Tolosako (Gipuzkoa) Epaileen Batzarraren edukiaren berri eman zaio Osoko Bilkurari.

Osoko Bilkurak proposatutako opor-plana onartzea erabaki du.

Gobernu Organoen uztailaren 26ko 1/2000 Erregelamenduaren 71.2 artikuluekin bat etorriz, bidal bedi akta Botere Judizialaren Kontseilu Nagusira, jakinaren gainean egon dadin eta legezkotasuna kontrola dezan.

### 1.3.- OPORRETAKO SALA

Euskal Autonomia Erkidegoko Salako kideen proposamena aztertu da, eta, Botere Judizialaren Lege Organikoaren 180. artikuluan xedatutakoa betez, Salak aho batez erabaki du honela gera dadila 2024ko Oporretako Sala:

#### EGONGO DIRA

Abuztuan honako hauek izango dira Salako buruak:

Ignacio Jose Subijana Zunzunegui jn. abuztuaren 12tik 31ra.  
Garbiñe Biurrun Mancisidor and. abuztuaren 1etik 9ra, jardunean.

Magistratuak:

Garbiñe Biurrun Mancisidor and. abuztuaren 1etik 31ra.

Luis Angel Garrido Bengoechea jn. abuztuaren 1etik 31ra.

Pablo Sesma de Luis jn.: abuztuaren 1etik 9ra  
abuztuaren 14tik 18ra.

Ana Isabel Molina Castiella and., abuztuaren 3tik 11ra.  
Abuztuaren 30etik 31ra.

Maite Alejandro Aranzamendi and., abuztuaren 30etik 31ra.

Fernando Breñoso Alvarez de Miranda jn., abuztuaren 1etik 4ra.

Felix Lajo Gonzalez jn., abuztuaren 1etik 5era.

Juan Carlos Iturri Garate jn., abuztuaren 3tik 11ra.

Trinidad Cuesta Campuzano and., abuztuaren 1etik 4ra.

Carlos Cardenal del Peral jn., abuztuaren 19tik 30era.

Nekane Bolado Zarraga and.: abuztuaren 1etik 18ra.

Roberto Saiz Fernandez jn.: abuztuaren 12tik 18ra.

Francisco de Borja Iriarte jn.: abuztuaren 19tik 31ra.

Manuel Ayo Fernandez jn.: abuztuaren 5ean, 6an, 7an, 8an, 9an, 29an eta 30ean.

#### **1.4.- PRAKTIKETAKO EPAILEEN PLAZAK, 73. PROMOZIOA.**

Osoko Bilkurari jakinarazi zaizkio Lehendakaritzan jasotako eta Eskola Judizialak bidalitako mezuak, 73. Promozioko praktiketako epaileei buruzkoak. Epaile horiek errefortzu- eta ordezkapen-epaile gisa jardungo dute Justizia Auzitegi Nagusi honen esparruan. Mezu horietan jakinarazten da Arabako Lurralde Historikorako epaile bat dagoela eta Bizkaiko Lurralde Historikorako lau epaile daudela. Horiek ordezte- edo indartze-funtzioak beteko dituzte 2024ko uztailaren 1etik azaroaren 30era bitartean.

Era berean, epaitegi dekanoei eta lehendakari jaunak egindako izendapen-proposamenen berri eman zaizkio Osoko Bilkurari. Honela diote hitzez hitz:

##### *“I.- Premisa*

*Eskola Judizialeko Zuzendaritzak Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko Lehendakaritzari jakinarazi dionez, 73. promozioko praktiketako bost epailek ordezkapen- eta indartze-lanak egingo dituzte Euskal Autonomia Erkidegoan, uztailaren 1etik azaroaren 30era bitartean: batek Arabako Lurralde Historikoan eta beste lauk Bizkaiko Lurralde Historikoan.*

##### *II.- Lege-esparrua*

*Botere Judizialaren Lege Organikoaren 307.4 artikulua xedatzen duenez, tutoretzapeko praktiken fasea gainditu ondoren, praktiketako epaileek nahitaezko aldi bat izango dute ordezkapen- eta indartze-lanak egiteko, 210. eta 216 bis artikuluetan aurreikusitakoaren arabera, eta lehentasuna izango dute ordezko epaileen aurrean, eginkizun horiek betetzeko edozein deialditan.*

*Manu berak ezartzen du, halaber, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak eta Justizia Auzitegi Nagusietako presidenteeek zainduko dutela zeregin horiek, lehentasunez, praktiketako epaileak gero destinatu ahal izango diren antzeko ezaugarriak dituzten organo judizialetan egitea. Hori dela eta, proposamenean sartuko dira lehen auzialdiko eta instrukzioko epaitegiak eta, kasuren batean, instrukzioko, lehen auzialdiko edo emakumeen aurkako indarkeriaren arloko epaitegiak, baldin eta hutsik badaude edo iraupen-aldi luze batean titularrik ez dutela izango aurreikus badaiteke, praktikaldi orotan eginkizun jurisdikzionala bete ahal izateko. Nolanahi ere, praktika-aldian plaza betetzen bada edo titularra lanera itzultzen bada, praktiketako epaileak azkeneraino jarraituko du laguntza-neurri gisa.*

### *III.- Dekanoen proposamena*

*Autonomia Erkidegoko barruti judizialetako dekanoei, Lehendakaritza honen 2024ko apirilaren 23ko erabakiari erantzunez, honako proposamen hauek egin zituzten:*

- Bilboko Epaitegi Dekanoa: zeharkako erreformazua epaitegi hauetan; Lehen Auzialdiko 1, 2, 3, 4, 7 eta 8 zenbakietan (plaza bat); zeharkako erreformazua Lehen Auzialdiko 9 zk.tik 13 zk.ra bitarteko Epaitegietan (plaza bat); eta erreformazua Zigor-arloko 6 zk.ko Epaitegirako (plaza bat).*
- Barakaldoko Epaitegi Dekanoa: Lehen Auzialdiko Epaitegien zeharkako erreformazua (plaza bat) eta Instrukzioko 1zk.ko Epaitegiaren erreformazua (plaza bat).*
- Durangoko Epaitegi Dekanoa: Lehen Auzialdiko eta Instrukzioko 1 zk.ko Epaitegia (amatasunagatiko lizentzia ekainetik aurrera) eta Lehen Auzialdiko eta Instrukzioko 4 zk.ko Epaitegia (betegabekoa).*
- Getxoko Epaitegi Dekanoa: epaitegi guztien zeharkako erreformazua.*
- Gasteizko Epaitegi Dekanoa: emakumeen aurkako indarkeriaren arloko epaitegian erreformazua; delitu arinak epaitzeko zeharkako erreformazua instrukzioko epaitegietan; Gasteizko Instrukzio 3 zk.ko Epaitegian eta Lan-arloko 2 zk.ko Epaitegian.*

### *IV.- Lehendakaritzaren proposamena*

*Botere Judizialaren Lege Organikoaren 307. artikuluan xedatutakoaren arabera, honako destino hauek proposatzen ditut:*

- Durangoko Lehen Auzialdiko eta Instrukzioko 1 zk.ko Epaitegia, ordezkapen-eginkizunetan.*
- Durangoko Lehen Auzialdiko eta Instrukzioko 4 zk.ko Epaitegia, ordezkapen-eginkizunetan.*
- Getxoko Lehen Auzialdiko eta Instrukzioko 1 zk.ko Epaitegia, erreformazu-eginkizunetan.*
- Bilboko Lehen Auzialdiko 3 zk.ko Epaitegia, erreformazu-eginkizunetan.*
- Vitoria-Gasteizko Emakumearen Aurkako Indarkeriaren Arloko Epaitegia, erreformazu-eginkizunetan.*

*Lehen hiru epaitegiak lehen destinoaren baliokideak dira (Lehen Auzialdiko eta Instrukzioko Epaitegiak) eta hutsik daude (Durangoko Lehen Auzialdiko eta Instrukzioko 4 zk.ko Epaitegia) edo titularrak iraupen luzeko lizentzia du (Durangoko Lehen Auzialdiko eta Instrukzioko 1 zk.ko Epaitegia eta Getxoko Lehen Auzialdiko eta Instrukzioko 1 zk.ko Epaitegia).*

*Gainerakoek, horrelako epaitegietan lanpostu hutsik ez dagoenez edo iraupen luzeko absentziarik ez dagoenez, aukera ematen dute organo judizial bati laguntzeko, baldin eta lanpostua egokitzea ekarri badu, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren erabaki bidez, lan-karga % 35 murriztuta sei hilabeteko epean (Bilboko Lehen Auzialdiko 3 zk.ko Epaitegia) edo Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren azken ikuskapen birtualaren arabera errefortzu hori behar badu, ebazkizun dituen ebazpenak ikusita (Gasteizko Emakumearen aurkako Indarkeriaren arloko Epaitegia).*

*Errefortzu-funtzioak egiten dituzten praktiketako epaileei dagokienez, Vitoria-Gasteizko Epaitegi Dekanoak Emakumeen aurkako Indarkeriaren arloko Epaitegirako jarduketa-plan bat helarazi zuen, zeina egokitzen jotzen baita jurisdikzioaren egikaritza titularrarekin banatzeko. Bilboko Lehen Auzialdiko 3 zk.ko Epaitegiari eta Getxoko Lehen Auzialdiko eta Instrukzioko 1 zk.ko Epaitegiari dagokienez, bidezkoa da, bakoitzak bere dekanorekin bidez, jarduketa-plan bat proposatzea, uztailearen 1etik aurrera ezartzeko.*

*Ordezko epaileetako baten lanpostua betetzera titularra badator edo titularra itzultzen bada, praktiketako epaileak organo judizial berean jarraituko du laguntza-eginkizunak betetzen, egingo eta onartuko den jarduketa-planaren arabera.”*

Eskaini daitezkeen plazei buruzko eztabaida egin da, dekanotzek helarazitako beharrei erantzunez, eta erreferentziatzen hartu dira haien prestakuntza-helburua eta praktiketako destinoak gerora praktiketako epaileen destinoa izan daitezkeen organo judizialen antzeko ezaugarriak izatearen lege-irizpidea.

Emilio Lamo de Espinosa Vázquez de Sola bokalak eskatu du, 2021eko urtarrilaren 7ko Gobernu Salaren batzordean onartutako irizpideei jarraiki, plaza erabilgarri guztiak eskaintzea.

Lehendakariak adierazi duenez, Lehendakariaren eskumena izanik eta eskaini beharreko plazak zehazteko prozedura inklusiboa jarraitu dela kontuan hartuta, ebatzi du ordezkapen-erregimenean eskaini behar direla hutsik dauden Lehen Auzialdiko eta Instrukzioko Epaitegietako plazak edo epe luzean epaile titularrik izango ez duten plazak; izan ere, plaza horiek praktiketako epaileak gerora destinatatu ahal izango direnen antzeko organo judizialak baitira. Horiek ez daudenean bakarrik eskaini ahal izango dira, errefortzu-erregimenean, Puntu Neutro Judizialetik datozen datuetan islatutako organo judizialaren egoeraren arabera justifikatuta dauden laguntza-plazak, ezaugarri berak izan ditzaten saiatuz.

Hori dela eta, Osoko Bilkurak erabaki du 73. promozioko praktiketako epaile berriei plaza hauek eskaintzea:

Araba:

- *Emakumearen Aurkako Indarkeriaren Arloko Vitoria-Gasteizko Epaitegia, errefortzu-eginkizunetan.*

Bizkaian:

- *Durango Lehen Auzialdiko eta Instrukzioko 1 zk.ko Epaitegia, ordezkapen-eginkizunetan.*
- *Durango Lehen Auzialdiko eta Instrukzioko 4 zk.ko Epaitegia, ordezkapen-eginkizunetan.*
- *Getxoko Lehen Auzialdiko eta Instrukzioko 1 zk.ko Epaitegia, errefortzu-eginkizunetan.*
- *Bilboko Lehen Auzialdiko 3 zk.ko Epaitegia, errefortzu-eginkizunetan.*

Horien artean lehentasuna oposizioaren hurrenkeraren arabera erabakiko da.

Ordezkapen-araubideko jurisdikzio-lana egiten den bitartean plazaren estaldura organikoa edo funtzionala gertatzen bada, praktiketako epaileak organo judizial berean jarraituko du errefortzu gisa. Adierazi den bezala, Vitoria-Gasteizko Emakumearen aurkako Indarkeriaren arloko Epaitegia indartzeko jarduera-plana onartu da, eta Getxoko eta Bilboko epaitegi dekanoei eskatu zaie jarduera-plan bat egiteko, aurtengo uztailaren 1etik aurrera ezartzeko.

#### **1.5.- IRUNGO LEHEN AUZIALDIKO ETA INSTRUKZIOKO 4 ZENBAKIKO EPAITEGIARI BANAKETA EGITETIK SALBUESTEA.**

Alfonso Alvarez- Buylla Naharro jaunak egindako txostenaren zabalpenaren berri eman zaio osoko bilkurari. Txosten hori azterketa estatistikoaren bidez egin da, Auzitegi honetako Gobernu Salaren Osoko Bilkurak 2024ko otsailaren 2an egindako bilkuran erabakitakoarekin bat etorritz. Honela dio, hitzez hitz:

#### **IRUNGO LEHEN AUZIALDIKO ETA INSTRUKZIOKO 4 ZK.KO EPAITEGIARI BANATZEKO SALBUESPENA HANDITZEARI BURUZKO TXOSTENA**

#### **AURREKARIAK**

**Lehenengoa.-** 2023ko azaroaren 30ean Irungo barruti judizialeko epaileen batzarra egin zen eta bere gai-zerrendan jasotzen zen emakumeen aurkako indarkeriaren arloan eskumena duen Lehen Auzialdiko eta Instrukzioko 4 zk.ko Epaitegiko magistratu titularren proposamena eztabaidatzea eta, hala bazegokion, onartzea. Proposamena gaur egun organo horri aitortutako banaketa-salbuespena handitzeari buruzkoa zen.

**Bigarrenen.-** Batzarraren ekitaldian, proposamena egin zuen magistratuak datu estatistikoak eman zituen azken urtean hasitako prozeduren kopuruari buruz, aurreko urteekin alderatuta; Irungo 1, 2 eta 3 zenbakietako Epaitegiako magistratuek kontraesaneko txostena aurkeztu zuten, eta egokitzen jo zituzten datuak eman zituzten.

**Hirugarrenen.-** Dagokion bozketa egin ondoren, proposamena baztertu egin zen, aurkako hiru botorekin, aldeko boto bat eta abstentzio bat.

## **ARRAZOIBIDE JURIDIKOAK**

### **Lehenengoa.- Planteatutako problematika**

Emakumeen aurkako indarkeriaren arloan eskumena duen Irungo Lehen Auzialdiko eta Instrukzioko 4 zk.ko Epaitegiako magistratu titularrak proposatzen du orain arte inguruabar horrengatik baliatzen zuen banaketaren salbuespena zabaltzea, hau da, gai zibil guztien % 29,6 (emakumearen aurkako indarkeriaren arloan duen eskumenagatik ex lege esleitzen ez zaizkion familia-zuzenbidekoak barne), halako moldeaz non eskatzen duen salbuespena honako hau izango bailitzateke: gai zibilen % 29,6 (familia-zuzenbidea kanpo utzita), familia-gaien % 50 (emakumearen aurkako indarkeriaren auzi penal baten kausa ez direnak) eta delitu arinen % 30.

Proposamen hori justifikatzeko adierazten da Emakumeen aurkako Indarkeriaren arloko Epaitegiaren lan-karga nabarmen handitu dela, banaketa-arauak eta, ondorioz, 4 zk.ko epaitegiari aitortutako salbuespena aldatu gabe, duela hamar urte baino gehiagotik.

1., 2. eta 3. epaitegiako magistratu titularrek ez dute zalantzan jartzen lan-karga handitu denik, baina uste dute berdina dela barruti judizialeko epaitegi guztietan, hala arlo zibilean (familia-zuzenbidea barne) nola penalean, eta uste dute prozedurak hasteko moduak (presazko eginbideak akusatuaren adostasunarekin edo adostasunik gabe, edo aurretiazko eginbideak) eragina duela auzien azken zenbaketan, eta, beraz, kasu batzuetan behin baino gehiagotan zenbatzen direla, bereziki presako eginbide gisa hasten direnean.



Era berean, ez datoz bat 4 zk.ko epaitegiari esleitutako familia-zuzenbideko auzigaien zenbaketari dagokionez; izan ere, magistratu titularraren ustez, ausaz esleitutako familia-gaien zenbaketa bat dago, eta beste zenbaketa bat Emakumeen aurkako Indarkeriaren arloko Epaitegiari modu objektiboan dagokion auzigaiena, honenbestean gainerako magistratuek uste baitute bigarren zenbaketa hori lehenengoaren barruan sartuta dagoela jada, zehaztapen bat baita, eta ez zenbaki gehigarri bat.

Era berean, agerian jartzen da Lehen Auzialdiko eta Instrukzioko 3 zk.ko Epaitegiaren egoera bereziki delikatuia, nahiz eta hori ez den sarrera-moduluaren ondorio, baizik eta bulego judizialeko arazoaren ondorio; izan ere, arazo horiek epaitegiaren etengabeko pilaketa eragin dute, eta argudiatzen da 4 zk.ko Epaitegia gehiago salbuesteak kalte handiagoa eragingo liokeela berez zaila den 3 zk.ko Epaitegiaren egoerari.

### **Bigarrena.- Erabaki bat hartzeko elementu eta datu garrantzitsuak**

Ikus daitekeenez, salbuespena handitzea proposatu duen magistratuak eta aurka egin duten hiru magistratuek bereziki azpimarratzen dute nola hasten diren prozedura penalak. Hala, 1., 2. eta 3. epaitegietako magistratuek adierazi dute estatistikatik ondorioztatzen dela prozedura bera bi edo hiru aldiz zenbatzen dela, prozedurari hasiera emateko moduaren arabera (presako eginbideak, adostasunarekin edo adostasunik gabe, edo aurretiazko eginbideak), aldiz, 4. epaitegiko magistratua ez dator bat horrekin.

Epaitegiak mistoak diren barruti judizialetan, zalantzarik gabe, emakumearen aurkako indarkeriaren arloan eskumen eskusiboa duenak sarrera-modulu handiagoa du, hala arlo penalean nola familia-zuzenbidean, eta hori kasu guztietan zuzentzen da banaketa-salbuespen partzial batekin, zeina aldatu egiten baita barruti batetik bestera, bolumenari eta modalitateari dagokienez. Irungo barruti judizialaren kasuan, salbuespen hori auzi zibil guztien % 29,6 da (emakumearen aurkako indarkeriaren auzi penal batetik etortzeagatik esleitzen ez zaizkion familia-zuzenbidekoak barne), eta salbuespen horrek hamar urte baino gehiago daramatza indarrean, Emakumearen aurkako Indarkeriaren Epaitegiko magistratuak adierazi duenez.

Bost epaitegietakoko lan-kargaren bilakaerari buruzko datuak eta txostenak bildu ondoren, Irungo Zerbitzu Erkide Prozesal eta Betearazpenekoaren letradu zuzendariak honako datu hauek eman zituen (exhorto zibilak eta penalak kontuan hartu gabe, nahiz eta txostenean agertzen diren):

-2004 eta 2009 artean, 4 zk.ko epaitegian sartu ziren auzi zibilak 347 izatetik 313 izatera igaro ziren; zigor-arlokoak, berriz, 1.695 izatetik 1.564 izatera igaro ziren 2009an, eta 2019an emakumeen aurkako indarkeriako 51 auzigai sartu ziren. Gainerako epaitegiek batez besteko bilakaera handiagoa izan zuten auzi zibiletan: 435 auzigai zibil inguru sartu ziren 2009an, eta batz bestea 1.635 auzigai penal epaitegi horietako bakoitzean.

-2010 eta 2015 artean, 4 zk.ko epaitegian izandako bilakaera 2010ean 322 auzigai zibil izatetik 2015ean 279 izatera igaro zen; gainerako epaitegietan, berriz, 2010ean batez bestea 434 auzigai izatetik 2015ean 375 izatera igaro zen. Zigor-arloko auzigaiei dagokienez, 4 zk.ko epaitegian, 2010ean 1.748 auzigai izatetik (39 emakumeen aurkako indarkeriari buruzkoak) 2015ean 1.280 auzigai izatera pasatu zen (102 emakumeen aurkako indarkeriari buruzkoak); gainerako epaitegietan, berriz, batez bestea zigor-arloko 1.468 auzigai sartu ziren 2010ean eta 1.256 2015ean.

-2016 eta 2021 artean, 4 zk.ko epaitegian izandako bilakaera 2016an 246 auzigai zibil izatetik 2021ean 338 izatera igaro zen; gainerako epaitegietan, berriz, 2016an batez bestea 351 auzigai izatetik 2021ean 437 izatera igaro zen. Zigor-arloko auzigaiei dagokienez, 4 zk.ko epaitegian, 2016an 847 auzigai izatetik (32 emakumeen aurkako indarkeriari buruzkoak) 2021ean 854 auzigai izatera pasatu zen (30 emakumeen aurkako indarkeriari buruzkoak); gainerako epaitegietan, berriz, batez bestea zigor-arloko 767 auzigai sartu ziren 2016an eta 762 2021ean.

-2022an, 4 zk.ko epaitegiak 303 auzigai zibil eta zigor-arloko 805 auzigai erregistratu zituen (59 emakumeen aurkako indarkeriari buruzkoak). Gainerako epaitegietan, batez bestea, 406 auzigai zibil eta zigor-arloko 721 auzigai izan ziren.

-2023an, 4 zk.ko epaitegiak 343 auzigai zibilen sarrera erregistratu zuen. Horietatik 31 zuzenean esleitu ziren, emakumeen aurkako indarkeriaren eskumenetik eratorritako familia-zuzenbidearen eskumen propioengatik; zigor-arloko auzigaiei dagokienez, 2023an 587 sartu ziren. Gainerako epaitegietan, batez bestea, 464 auzigai zibil izan ziren (50 familiakoak, 4 zk.ko epaitegiari zuzenean esleitu ez zitzaizkionak), eta 200 zigor-arloko auzigai. Hala ere, uste dugu akatsen bat egon behar dela datuetan puntu honetan, 2 zk.ko epaitegian 78 auzigai baino ez dira zenbatu urte osoan.


-Azkenik, eta 2024ko lehen hilabeteetan, 4 zk.ko Epaitegiak 112 auzigai zibil jaso ditu, horietatik 10 zuzenean esleituak, aldiz, beste lau Epaitegien batez bestekoa 141 auzigaikoa izan baita. Zigor-arloan, 4 zk.ko Epaitegiak 140 auzigai jaso ditu, horietatik 83 eskumen bereziagatik zuzenean esleitutakoak; gainerako epaitegien batez bestekoa, berriz, 9 izan da.

*Txostena egin duen letraduak berak bi grafiko aurkezten ditu, 2004tik 2024ra bitartean bost epaitegietan izandako auzigaien sarreraren bilakaerari buruzkoak:*

*Zigor-arloko auzigaiak:*



*Auzigai zibilak:*



Datuak ikusita, ondorioztatzen da ezen, 2021era arte auzigai penal eta zibilen sarreraren bilakaera antzekoa izan bazen ere epaitegi guztietan, gorakada berezirik gabe, 2021etik aurrera gora egin duela eremu guztietan, emakumeen aurkako indarkeriaren berezko auzigaiak barne; izan ere, 2024ko lehen hilabeteetan, 4 zk.ko epaitegiak zigor-arloko 140 auzigai jaso ditu, eta, batez beste, gainerako epaitegiek, berriz, 96. Aitzitik, 2023an eta 2024ko lehen hilabeteetan 4 zk.ko epaitegian gainerako epaitegietan baino auzigai zibil gutxiago sartu ziren (2023an 343 eta 464, hurrenez hurren, eta 2024an 112 eta 141). Emakumeen aurkako indarkeriaren arloan eskumena izateagatik, 4 zenbakiari esleitutako auzigai zibilen kopurua 31 izan zen 2023an, eta 10 2024ko lehen hilabeteetan.

Beraz, eta erabiltzen diren datuak kasu guztietan bat ez badatoz ere, egiaztatu da 4 zk.ko epaitegian zigor-arloko auzigaien kopuruak gora egin duela eta, jakina, auzigai gehiago sartu direla, baina egia esan, gainerako epaitegietan ere gora egin du auzigai zibilen sarrerak, eta sarrera-bolumen hori 4 zk.ko epaitegiarena baino pixka bat handiagoa izan da, eta ez da ageri 4 zk.ko epaitegiari esleipen garrantzitsurik egin zaionik emakumearen aurkako indarkeriaren ondoriozko familia-zuzenbideko gaitetan.

## **Hirugarrena.- Autonomia Erkidegoko beste barruti judizialetan emakumearen aurkako indarkeriaren arloan eskumena duten epaitegi mistoetako salbuespenak**

Puntu honetan, komeni da konparazio bat egitea epaitegi mistoak dituzten autonomia-erkidegoko barruti judizialekin, kontuan hartuta Irun dela bost epaitegi dituen bakarra, Getxok sei baititu, eta Gernikak, Durangok, Tolosak eta Bergarak launa. Amurrioko, Balmasedako, Azpeitiko eta Eibarko barruti judizialak, berriz, bi epaitegi besterik ez dituztenez, ez dira egokiak konparazioan kontuan hartzeko.

Bada, bildutako datuak ikusita, eta salbuespen-bolumenaren beheranzko ordenari jarraituz, honako hau egiaztatu da:

1. Emakumearen aurkako indarkeriaren arloan eskumena duen Bergarako epaitegiak % 30eko salbuespena du aitortuta finantza-produktuen gaineko judizio arruntetan eta ahozko judizioetan eta kontratazio-baldintza orokorren gaineko banakako demandetan; zigor-arloan, aldiz, % 30eko salbuespena dauka auzigai guztietan, baita kereilen %30 ere.
2. Getxon, salbuespena auzigai zibil guztien % 30era mugatzen da.
3. Tolosan, zigor-arloan, Emakumearen aurkako Indarkeriaren Epaitegiari ez zaizkio banatzen data ez jakiteagatik edo guardia batean baino gehiagotan egin izanagatik ausaz banatzen diren delituak, ezta exhortoak eta kereilak ere; arlo zibilean, berriz, Emakumearen aurkako Indarkeriaren Epaitegia salbuesten da emakumearen aurkako indarkeriaren arloko eskumenagatik esleituta ez dituen familia-gai guztietatik.
4. Durangoko eta Gernikako barruti judizialetan, Emakumearen aurkako Indarkeriaren arloko Epaitegiaren salbuespena auzigai zibil guztien % 25 da.

Irungo kasuan, eta 4 zk.ko epaitegiko magistratuak emandako datuak soilik kontuan hartuz gero (datu horiek ez datoz guztiz bat Irungo Zerbitzu Erkide Prozesal eta Betearazpenekoaren letradu zuzendariak egindako txostenean jasotakoekin), azken hamar urteetan bikoiztu egin da emakumearen aurkako indarkeriaren arloko eskumenetik eratorritako auzigai penalen eta familia-gaien sarrera (zigor-arloko 151 auzigai eta 10 familia-gai 2013an, aldiz, 2023ko azaroaren 7an, zigor-arloko 298 auzigai eta 19 familia-gai).

Baina, 1, 2 eta 3 epaitegietako magistratuek adierazten duten bezala, sarreraren igoera antzekoa izan da epaitegi guztietan, bai zibilean, bai zigor-arloan; horrek esan nahi du auzigai zibilen % 29,6ko salbuespenak ere, proportzioan sarrera zibil handiagoa suposatzen duela gainerako epaitegietan.

Gauzak horrela, eta hamar urtean emakumearen aurkako indarkeriarekin lotutako gaiak (penala eta zibila) ia % 100 igo direla zalantzan jartzen ez bada ere, egia esan, zenbaki absolutuetan, batez ere familian, gorakada ez da hain handia (10 gai gehiago urtean 2013tik 2023ra). Irungo Lehen Auzialdiko eta Instrukzioko 4 zk.ko Epaitegiari aitortutako salbuespena Getxoko Indarkeriaren arloko Epaitegiarena baino pixka bat txikiagoa da, baina kontuan hartu behar da azken barruti horretan gehiegizko auzigaiak bost epaitegiren artean banatzen direla, eta ez lau epaitegiren artean, Irunen bezala, eta, beraz, beste epaitegietako bakoitzak bere gain hartu beharreko karga txikiagoa dela. Eta, bestalde, Gernika, Durango eta Tolosakoa baino handiagoa da (azken kasu horretan, gutxi gorabeherako kalkulua da, arlokako salbuespena ezartzen delako, baina argi dirudi Tolosako zigor-arloko salbuespena ez dela bereziki esanguratsua, eta arlo zibilean familia-zuzenbidera mugatzen dela). Bergaran soilik da handiagoa zigor-arloko salbuespena, eta arlo zibileko datuak falta dira, gaiaren arabera mugatuta baitago, eta ez dakigu zer sarrera duten finantza-produktuei buruzko auzigai zibilek eta kontratazio-baldintza orokorreki buruzko banakako demandek.

Beste alde batetik, ezin da ahaztu jurisdikzio zibilean nabarmen handitu dela sarrera-modulua azken urteotan, eta, azkenean, higiezinaren berme errealak dituzten finantzaketa-kontratuetan sartutako baldintza orokorren gaineko banakako akzioei buruzko auzigaiez probintzia-hiriburu bakoitzean arduratzen diren epaitegien espezializazioa kentzen bada (mailegu-hartzailea pertsona fisiko bat denean), epaitegi zibil guztiek hartuko dutela auzigai horien ardura, lurralde-eskumenaren arabera, eta horrek ekarriko duela barruti judizial guztietan sarrerak nabarmen areagotzea. Horren ondorioz, Irungo 4 zk.ko Epaitegiaren aldeko auzigai zibilen % 29,6ko egungo salbuespenak lan-karga gehigarri garrantzitsua ekarriko du beste lau entzat.

Azaldutako guztiagatik, ulertzen da Irunen aurreikusitako salbuespena Euskal Autonomia Erkidegoko beste barruti judizial batzuetan onartutakoen batez bestekoan dagoela, eta onuragarriagoa dela horietako batzuetan baino, eta azken hiru urteetako sarrera-datuek ez dutela adierazten emakumeen aurkako indarkeriaren arloko eskumen eskusiboa duen epaitegi baten auzigai penal eta zibilen gorakada esanguratsurik, Irungo 4 zk.ko Epaitegian auzigai zibil arruntetan sarrera txikiagoa izan dela ikusten den bitartean, eta horri gehitu behar zaio bost Epaitegietan auzigai zibil gehiago sartu direla oro har.

Azaldutako guztiagatik, honako proposamena egiten da,

## **PROPOSAMENA**

Azaldutakoa kontuan hartuta, Irungo Lehen Auzialdiko eta Instrukzioko 4 zk.ko Epaitegirako ezarritako banaketa-salbuespenari eustea proposatzen da.

Hau da ohore handiz proposatzen diodana Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Gobernu Salari.

Dagokion eztabaida egin ondoren, Salak bere gain hartzen du ponentziaren edukia, eta Irungo Lehen Auzialdiko eta Instrukzioko 4 zk.ko Epaitegiari dagokion salbuespenari eustea erabaki du, eta Gobernu Organoen uztailaren 26ko 1/2000 Erregelamenduaren 71.2 artikuluekin bat etorriz, bidal bedi akta Botere Judizialaren Kontseilu Nagusira, jakinaren gainean egon dadin eta legezketasuna kontrola dezan.

### **1.6.- HIGIEZINEN BERMEAK DITUZTEN FINANTZA-KONTRATUETAKO, MAILEGU-HARTZAILEA PERTSONA FISIKOA DENEAN, AKZIO INDIBIDUALEN BERRI DUTEN LEHEN AUZIALDIKO EPAITEGIEN ESPEZIALIZAZIOA LUZATZEA, 2024KO EKAINAREN 30EAN MUGAEGUNAREKIN.**

Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiko Langile Judizialen Bulego Judizialak 2024ko maiatzaren 21ean bidalitako jakinarazpenaren berri eman zaio osoko bilkurari. Gaia da higiezin-bermeen bidezko finantzaketa-kontratuei buruzko banakako akzioen (mailegu-hartzailea pertsona fisikoa denean) ardura duten lehen auzialdiko epaitegien espezializazioa luzatzea, epemuga 2024ko ekainaren 30koa izanik.

Alfonso Alvarez- Buylla Naharro jaunak egindako ponentziaren berri eman zaio osoko bilkurari, bai eta Bilboko Lehen Auzialdiko 15 zk.ko Epaitegiko Justizia Administrazioaren letradu Maria Begoña Galan Garciak egindako txostenarena ere. Txosten horrek honako hau dio, hitzez hitz:

**“MAILEGU-HARTZAILEA PERTSONA FISIKOA DUTEN HIGIEZIN-BERMEEN BIDEZKO FINANTZAKETA-KONTRATUEN GAINEKO BANAKAKO AKZIOEN ARDURA DUTEN LEHEN AUZIALDIKO EPAITEGIEN ESPEZIALIZAZIOAREN LUZAPENARI BURUZKO TXOSTEN-PROPOSAMENAREN INGURUKO PONENTZIA; EPEMUGA 2024KO EKAINAREN 30A IZANIK.**

### **AURREKARIAK**

*Lehenengoa.- Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiko kide den Gerardo Martinez Tristan jaunak eskatuta, 2024ko maiatzaren 21ean, Gobernu Sala honen txostena eskatu zen, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak berak Vitoria-Gasteizko Lehen Auzialdiko 5 zk.ko, Donostiako Lehen Auzialdiko 8 zk.ko eta Bilboko Lehen Auzialdiko 15 zk.ko epaitegien espezializazio-plana amaitutzat emateko egindako proposamenari buruz. Hori, hala ere, ez da eragozpena izango gobernu-salak, epaileen batzar sektorialari entzun ondoren, banaketa osoaren edo partzialaren aldi baterako salbuespenak erabaki ahal izateko, beharrezkoa bada, ebazkizun dauden ebazpenei aurre egiteko.*

### **ARRAZOIBIDEAK**

*Lehenengoa.- Eragindako hiru organo judizialen egoera*

#### *1. Bilboko Lehen Auzialdiko 15 zenbakiko Epaitegia.*

*Epaitegi honi dagokionez, jasota dago Justizia Auzitegi Nagusiko Gobernu Salak, 2024ko maiatzaren 3an Batzordean bildurik, honako erabaki hau hartu zuela:*

*1. Marcos Bermudez Avila jaunari Bilboko Lehen Auzialdiko 15 zk.ko Epaitegian eman zitzaion zerbitzu-eginkizuna luzatzea, funtzio-aldaketarik gabe, seinalatutako 104 auzigai ebatzita hilean.*

*2. Zerbitzu-eginkizun berri baterako deialdia egitea, eginkizun-aldaketarik gabe, Bilboko Lehen Auzialdiko 15 zk.ko Epaitegian. Seinalatutako 104 auzigai ebatzita hilean.”*

*Hona hemen proposamenaren justifikazioa:*

*2.1.- Neurriaren xede diren organoen egoera: adierazitako ekintzak Bilbon ebatzen dituen epaitegia indartzea da neurriaren xedea, Bizkaiko probintzia osorako. Gaur egungo egoera honako hau da (organo horretako Justizia Administrazioaren letraduaren txostena erantsi da 1. eranskin gisa, 2024ko apirilaren 11n, 2024ko apirilaren 10ean eskatuta):*

*-Bilboko Lehen Auzialdiko 15 zk.ko Epaitegia 2018ko uztailaren 1ean hasi zen lanean, eta arlo horretako eskumen eskusiboa eta baztertzaila zuen. 2018ko bigarren erdian 2.669 auzigai jaso zituen, 2019an 4.287, 2020an 3.122, 2021ean 4.367, 2022an 2.959 eta 2023an 3.409. Aurten 6.651 auzigai sartu dira, eta Epaitegi Dekanoak beste 1.850 auzigai banatu behar ditu, guztira 8.501 auzigai. Puntu honetan adierazten da Avantius programak egunean 300 auzigai baino ez dituela uzten erregistratzen .*



*Sarrera oso handia izan da 2024ko martxoaren 21era arte, hau da, 6/23 Legegintzako Errege Dekretuaren erreforma indarrean jarri arte; beraz, gai asko erregistratu gabe daude, dagoeneko sisteman sartuta.*

*2023an 4.619 auzigai ebatzi ziren, eta urtearen amaieran, 4.578 auzigai ebatzi gabe geratu ziren. Epaitegia magistratu titularrak, aipatutako bi zerbitzu-eginkizunek, Justizia Administrazioaren letradu titular batek, errefortzu-eginkizunetan diharduen Justizia Administrazioaren letradu batek eta justiziako hamar funtzionariok zerbitzatzen dute.*

*Bi zerbitzu-eginkizunen bilakaera honako hau da:*

- Marcos Bermudez Avila jaunak zerbitzu-eginkizunean funtzio-aldakarekin ezarritako auzigaien kopurua bete du. Eta zerbitzu-eginkizunarekin jarraitzeko borondatea adierazi du.*
- Paula Boix Sampederro andreak zerbitzu-eginkizunean funtzio-aldakarekin ezarritako auzigaien kopurua bete du.*

*Nolanahi ere, aipatutako zerbitzu-eginkizunek organoak ebazkizun zituen auzigai kopuru oso handia murrizteko balio izan zuten. Aipatutako txostenean islatzen den bezala, BJKNren estatistikaren arabera ebazteke zeuden auzigaiak honako hauek ziren: 6.656, 2021eko ekainaren 30ean; 6.508, 2021eko abenduaren 31n; eta 4.578, 2023ko abenduaren 31n. Hala ere, adierazi den bezala, 2024ko lehen hiruhilekoan sartu diren auzigaiak edozein aurreikuspen gainditu dute.*

*2.2- Auzigaien atzerapena edo metaketa eragin duten zergatien adierazpen arrazoitua: Espainia osoan espezializatutako gainerako organo judizialek bezala, sartu diren eta sartzen jarraitzen duten auzien kopuru handiak ere gainditu egiten du horri buruz egin daitekeen edozein aurreikuspen. Abian jarri zenetik, 5 urte hauetan (2020ko konfinamendu garaiko geldiaraztea barne), 31.500 auzigai jaso ditu guztira, eta horietatik 20.000 auzigai baino gehiago ebatzi dira.*

*2.3.- Organo judizialaren lan-bolumenaren eta ebazteke dauden auzigaien kopuruaren eta motaren aipamena: esan bezala, magistratu titularrak egindako lana gorabehera, finkatutako moduluen oso gainetik dagoena, bai eta bere helburuak betetzeko garatu diren zerbitzu-eginkizunena ere; aurtengo auzigai-sarrerari erreparatuta, kalkulatzeko da 10.000 auzigai baino gehiago izango direla ebazteke.*

*2.4.- Neurrien oinarria: eskatutako luzapena eta bigarren zerbitzu-eginkizuna mantentzea ezinbestekoak dira organo judizialaren kolapsoa saihesten saiatzeko. Sartu diren auzigaiak asko direnez, oraindik egiteke dauden prozeduren kopurua oso handia da, nahiz eta zerbitzu-eginkizunek beren helburuak betetzen dituzten, eta magistratu titularrak epaitegi mota horretako lan-moduluen oso gainetik lan egiten duen.*

*Gaur egun, eta emandako datuen arabera, 5.947 auzigai sartu dira Bilboko Lehen Auzialdiko 15 zk.ko Epaitegian 2024ko urtarrilaren batetik martxoaren 31ra bitartean, eta aurreko hiruhilekoak diren 4.578 auzi daude. Aipatu hiruhilekoan 1.076 auzigai ebatzi dira.*

## 2. Vitoria-Gasteizko Lehen Auzialdiko 5 zk.ko Epaitegia

*Vitoria-Gasteizko Lehen Auzialdiko 5 zk.ko Epaitegiak ez dauka inolako laguntza-neurririk erabakita; aurtengo lehen hiruhilekoaren sarreraren bolumena 2.407 izan da, eta aurreko hiruhilekokoak diren 1.186 auzigai daude ebazteke. Hiruhilekoan 1.389 auzigai ebatzi dira.*

## 3. Donostia-san Sebastianeko Lehen Auzialdiko 8 zk.ko Epaitegia

*Donostia-San Sebastianeko Lehen Auzialdiko 8 zk.ko Epaitegiak ez dauka inolako laguntza-neurririk erabakita; aurtengo lehen hiruhilekoaren sarreraren bolumena 3.050 izan da, eta aurreko hiruhilekokoak diren 3.025 auzigai daude ebazteke. Hiruhilekoan 644 auzigai ebatzi dira.*

*Bigarrena.- Datuen interpretazioa*

*Azaldutako datuetatik, ondorio bakarra atera daiteke: hiru organo judizialen sarrera- eta atzerapen-mailak direla-eta, espezializazioa sei hilabetez luzatzea komeni da. Eta proposamena egin dutenek bat egiten dute Bilboko epaile dekanok egindako azterketa sakonarekin, zeina Gobernu Salak onartu baitzuen 2024ko maiatzaren 3ko bileran.*

*Espezializazio-plana une honetan amaitutzat jotzeak esan nahiko luke ez litzatekeela kontuan hartuko hiru organo judizialek urtero jasotzen dituzten auzigaien sarrera oso handia, eta horrek auzigai-tasa handiko esparru batean kokatzen gaitu, ez dena murritzten.*

*Hori kontuan hartuta, honako proposamena egiten da*

### PROPOSAMENA

*Espezializazioa sei hilabetez luzatzeko eskatzea, geroago luzatzeko aukera baztertu gabe. Eta hau da ohore handiz jakinarazten diodana zuzentzen natzaion Gobernu Salari.*

*Nik, MARIA BEGOÑA GALAN GARCIA andreak, Bilboko Lehen Auzialdiko 15 zk.ko Epaitegiko Justizia Administrazioaren letradua naizen aldetik, egindako eskaera dela-eta, ERABAKI DUT:*

*Epaitegi honetan sartutako eta ebatzitako auzigaiei buruzko nahitaezko txostena egitea; epaitegia zeina espezializatuta baitago “Higiezin berme erreala duten finantzaketa-kontratuetako baldintza orokorretan, mailegu-hartzailea pertsona fisikoa denean”. 2018ko uztailen hasi zen demanden banaketa, urte horretako ekainaren 30ean hasi baitzen jardunean, sortu berria zelako.*

*Epaitegiaren egoera: Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak, 2023ko abenduan, epaitegi honek abusuzko klausulen arloan duen espezializazioari eta eskumenari modu eskusiboan eta baztertzailean eustea erabaki zuen. Bizkaia osoa hartzen zuen barnean eta planak jarraipena izan zezan kontuan hartutako irizpide nagusiak hauek izan ziren: organo judizialean 1.500 auzigai baino gehiago sartu ziren urteko lehen hiru hiruhilekoetan, eta 1.500 auzigai baino gehiago zeuden ebazkizun irailaren 30ean.*

2018	2.690
2019	4.287
2020	3.122
2021	4.367
2022	2.959
2023	3.409
2024	9.700 2024/05/30ean

*Txosten hau egin den egunean, hasiera ematen ari zaie Bilboko Epaitegi Dekanoko Erregistro eta Banaketa Zerbitzuak 2023an epaitegi honi banatu zizkion demandei, eta guztira 1.809 ziren urte horretan hasi gabe zeudenak, gehi 2024ko 9.700; halaber, 5.038 idazki daude bideratzeke, eta gordailu eta kontsignazio judizialen kontuaren saldoa 2.248.597,18 eurokoa da.*

*Zehaztu behar da, halaber, epaitegi honetan "Izapidean dauden auziak" 15.333 prozedura arrunt direla, gehi behin betiko betearazpeneko espedienteak (371) eta behin-behinekoak (554), adiskidetzeak (353), kostuen tasazioak (3.080) eta kostuen tasazioak aurkaratzeko espedienteak (254).*

*Halaber, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren estatistikaren datuen arabera, ebatzitako eta ebatzteke dauden auzigaiak honako hauek dira:*

- 2023/12/31n ebatzitako judizio arrunteko prozedurak ..... 4.619
- 2024ko Lehen hiruhilekoan ebatzitako judizio arrunteko prozedurak ..... 1.076
- Hasi eta ebatzteke dauden judizio arrunteko prozedurak 2024/03/31n ..... 9.449

*Hori guztia dela eta, nahiz eta eztabaida ezina den epaitegia osatzen duten pertsona guztien lan neketsuari esker, epaitegia abian jarri zenetik, Bulego Judizialaren antolaketaren eta zuzendaritzaren, espediente judizialen izapidetzearen eta kudeaketaren, erabakigabetasunaren bilakaeraren eta ebazpen-tasaren hobekuntza nabarmenak izan, auzigaien sarrera masiboa izaten jarraitzen du, eta une honetan inoiz pentsatu ez diren mailetara iristen da, non epaitegia gaindimentsionatuta baitago, bai auzigaien sarreran, bai izapidetzen eta ebazten ari diren auzigaietan ere.*

*Hala jakinarazten dut, dagokion lekuan ondorioak izan ditzan.*

Osoko bilkurak, eztabaidatu ondoren, ponentziaren baldintzak onartzen ditu, eta erabaki du Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren Idazkaritza Nagusiari igortzea higiezin berme erreala duten finantzaketa-kontratuei buruzko banakako akzioez (mailegu-hartzailea pertsona fisikoa denean) arduratzen diren lehen auzialdiko epaitegien espezializazioaren luzapenari buruzko txostena, 2024ko ekainaren 30eko epemuga duen espezializazioari buruzkoa.

## **2.- Ordezko magistratuei eta ordezko epaileei buruzkoa**

### **2.1.- 2024/2025 URTE JUDIZIALERAKO ORDEZKO MAGISTRATUAK ETA ORDEZKO EPAILEAK IZENDATZEKO PROPOSAMENA**

2024/2025 urte judizialerako ordezko magistratuen eta ordezko epaileen plazak betetzeko deialdi irekian aurkeztutako eskabideen berri eman zaio Salari.

Halaber, berariaz horretarako sortutako Ebaluazio Batzordeak egindako proposamenaren berri eman da, Karrera Judizialaren ekainaren 7ko 1/95 Erregelamendua aldatzen duen Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren Osoko Bilkuraren azaroaren 6ko 4/2001 Erregelamendu Akordioaren 4. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Karrera Judizialaren 2/2011 Erregelamenduaren 107.2 artikuluan aurreikusitako txostenen berri eman zaio Osoko Bilkurari, Justizia Auzitegi Nagusi honetako Gobernu Idazkaritzan dauden jarraipenen, informazio-eginbideen, sumario-informazioen eta diziplina-espedienteen berri, aurreko urte judizialetan izendatutako lehiakideei dagokienez. Hori guztia Karrera Judizialaren 2/2011 Erregelamenduaren 93.2 artikuluan xedatutakoaren arabera.

Osoko bilkurak, lehenago aipatutako 93. artikuluan ezarritakoaren arabera, horiek guztiak proposamenean sartzearabaki du, XXX lehiakidea izan ezik. Berari buruzko 107.2 artikuluan aurreikusitako txostenen edukia kontuan hartuta, uste du ezin dela izendapen-proposamena egin, azken urte judizialean ebazteke utzi baititu honako hauek: 32 prozedura, XXX-ko XXX zk-ko epaitegian egindako jardunari dagozkionak (hiru deialdi, bat 2023ko urtarrilaren 1ean hasi eta 2023ko uztailaren 20an amaitu zena; beste bat, 2023ko uztailaren 25ean hasi eta urte eta hilabete bereko 31n amaitu zena, eta bat, azkena, 2023ko abuztuaren 22an hasi eta hilabete eta urte bereko 25ean amaitu zena), eta 148 prozedura XXX-ko (XXX-ko XXX zk-ko epaitegian egindako jardunari dagozkionak (deialdia 2023ko irailaren 4an hasi zen, eta indarrean jarraitzen du). Osoko Bilkurak uste du ebazpenen kopuruak eta antzintasunak agerian uzten duela datorren urte judizialean ezin duela behar bezala egikaritu jurisdikzioa.

Salak honako hautagai hauek proposatzea erabaki du, 2/2011 Erregelamenduak lehentasunezko hautagaiei ematen dien lehentasuna kontuan hartuta (epaileak, fiskalak eta ordezko letraduak, jarduneko abokatuak eta prokuradoreak eta unibertsitateko irakasleak):

XXX

Igor bekio Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiari onartutako proposamena.

## **2.2.- ORDAINSARIEKIN LOTUTAKO DEIAK. BALORAZIO-IRIZPIDEAK.**

Gobernu Salaren Batzordearen 2024ko maiatzaren 3ko Erabakia betez, Osoko Bilkurari jakinarazi zaizkio Bilboko epaile dekanoren gobernu-akordioak, ordainsari-deiei buruzko kanpoko ordezkapen-irizpideei buruzkoak, haietan sartzea aztertzeko.

Osoko Bilkurak, eztabaidatu ondoren, honako irizpide hauek sartzea erabaki du, ohiko ordezkapenen eta kanpoko ordezkapenen ondoriozko ordainsari-deialdien iraupena zehazteko:

- emandako ebazpenen kopurua;
- emandako ebazpenen konplexutasuna;
- orientazio gisa, karrera Judizial eta Fiskalaren Ordainsari Araubidea arautzen duen maiatzaren 26ko 15/2003 Legea betetzeko 2/2018 Erregelamenduaren arabera baremazioa, karrera judizialeko kideen helburuen arabera ordainsari aldakorrei buruzkoa.

## **2.3.- 11/2024 KEXA-ESPEDIENTEA.**

11/2024 Kexa-espedientean egindako jarduketan berri eman zaio Osoko Bilkurari. Kexa-espedientea Donostiako Lehen Auzialdiko 2 zk.ko Epaitegiak 110/2017 zk.ko Prozedura Arruntarekin lotutako jarduketan bultzada prozesala ukatzea dela eta XXX andreak aurkeztutako idazkiaren ondorioz hasi zen.

Osoko Bilkurak, 11/2024 kexa-espedientearen edukia kontuan hartuta, erabaki du hura Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren Diziiplina Ekintzaren sustatzaileari bidaltzea, Botere Judizialaren Lege Organikoaren 423.1 eta 605. artikuluetan aurreikusitako ondorioetarako.

## **3.- Bake-epailei buruzkoa**

## **4.- Diziiplina-arloa**

(Gairik gabe)

## **5.- Laguntza-neurriak eta jarraipena**

### **5.1.- GIPUZKOAKO PROBINTZIA AUZITEGIKO BIGARREN ATALERA KO ERREFORTZUKO MAGISTRATUA IZENDATZEKO ESKAERA.**

Osoko Bilkurari Gipuzkoako Probintzia Auzitegiko 3. Ataleko presidenteak aurkeztutako txostenaren berri eman zaio. Bertan, organoaren egoera azaldu

ondoren, atal horretarako errefortzuko magistratu bat lehenbailehen izendatzeko eskatu du.

Ines Soria Encarnacion andrea izendatu dute txostengile, eta honako txosten hau egin du:

**“GIPUZKOAKO PROBINTZIA AUZITEGIKO BIGARREN ATALA INDARTZEKO ESKAERA**

*Justizia Auzitegi Nagusiko lehendakariaren erabakiz, txostengile izendatu naute Gipuzkoako Probintzia Auzitegiako presidenteak egindako errefortzu-eskaerari buruzko txostena emateko.*

**Eskatutako neurria**

*Zerbitzu-eginkizuna funtzio-aldaketarekin, banku-erakundearen eta kontsumitzaile baten artean hipoteka-bermedun maileguak kontratatzeko baldintza orokorren gaineko errekurtsio arruntei buruzko apelazio-errekurtsioak ebazteko.*

**1. ORGANOAREN EGOERA**

*EAEko Justizia Auzitegi Nagusiaren gobernu-salaren osoko bilkurak, 2024ko apirilaren 12ko bileran, aho batez onartu zuen 2024ko ekitaldirako unitate judizialen beharren memoria. Txosten horren arabera, Gipuzkoako Probintzia Auzitegiako Bigarren Atalak, besteak beste, sarrera-moduluaren % 130 gainditu zuen azken hiru urteetan.*

*Zehazki, txosten horretan jasotako datuak honako hauek dira:*

Probintzia Auzitegiak. Arlo Zibileko Atala						
	2021		2022		2023	
ORGANOAK	Sartutakoak	Sarrera-modulua	Sartutakoak	Sarrera-modulua	Sartutakoak	Sarrera-modulua
Arabako PA-ko 1. Atala	1870	231%	2484	309%	1748	216%
Gipuzkoako PA-ko 2. Atala	1764	176%	1769	176%	1451	143%
Bizkaiko PA-ko 3. Atala	642	106%	873	146%	740	123%
Bizkaiko PA-ko 4. Atala	2806	345%	1453	177%	861	101%
Bizkaiko PA-ko 5. Atala	619	102%	882	147%	663	110%

**2. EGOERA ERAGIN DUTEN ARRAZOIAK**

Gipuzkoako PA-ko II Atala				
	SARTUTAKOAK BALDINTZAK	SARTUTAKOAK GUZTIRA	EBAZTEKE BALDINTZAK	EBAZTEKE GUZTIRA
2021	424	1773	141	1037
2022	600	1788	423	1137
2023	552	1476	603	1572

*Puntu neutro judizialek ateratako banakako buletinetatik ateratako datuen arabera, Gipuzkoako Probintzia Auzitegiko Bigarren Atalaren gainkarga hipoteka-maileguak kontratatzeke baldintza orokorretako errekurso arruntetatik dator batez ere.*

*Ondorioz, uste dut proposatutako neurria arrazoizkoa dela Atal honen atzerapen orokorra murrizteko eta, horrekin batera, gainerako auzigai arruntak izapidetzeko erantzun-denbora.*

### **3.ESKATUTAKO NEURRIA**

*Eskatutako neurria funtzio-aldaketa duen zerbitzu-eginkizuna da.*

*Neurri horrek ahalbidetzen du indartu beharreko organoaren lan-karga azkarrago arintzea, hiler 50 auzigaiez arduratzea ahalbidetuko lukeelako, berriaz, funtzio-aldaketarik gabeko neurria erabakiz gero, gehienera 32 izango lirateke.*

*Aurreko erreformaz-erakaldak baldintzatu dituzten aurrekontu-mugak kontuan hartuta, uste dut denboran laburragoa aurreikusten den neurri batek onarpen handiagoa izan dezakeela, aurrekontuaren aldetik, ebatzita gai kopuru bera lortzeko iraupen luzeagoa eskatzen duen neurri batek baino.*

### **4.ESKATUTAKO NEURRIAREN EDUKIA**

*Laguntza-neurria kontsumitzaileekin egindako hipoteka-bermedun maileguen kontratazio-baldintza orokorrak ebatzeko baino ez da eskatzen.*

*Honako aukera hauek planteatu daitezke:*

- A. Era guztietako auzigaiak ebatzeko indartze-neurria, ataleko magistratu bakoitzari dagokion kopuruan.*
- B. Hipoteka-maileguen kontratazioaren baldintza orokorre buruzko apelazio-errekursoak ebatzeko neurria.*

*Aukera bakoitzaren alde onak eta txarrak:*

- A. Proposatutako neurriak banaketa bidezkoagoa dakar bigarren atala osatzen duten magistratuen artean.*  
*Aldiz, neurria eraginkorra izateko behar den denbora handiagoa da. Magistratu bakoitzeko astero banatu ohi den ponentzia-kopuruaren hurbilketa bat eginez, erreformaz-erakaldak magistratuak hiler 30 auzigai inguru ebatz ditzake. Horren ondorioz, sei hilabeteren buruan, neurriak, ebatzite dauden 150 auzigai murrizteko aukerarik baino ez zuen emango.*
- B. Eskatutakoarekin bat proposatutakoa aukeratuz gero, erreformaz-erakaldak magistratuak hiler 50 auzigai ebatz ditzake, guztira 300 auzigai erreformaz-erakaldak iraute duen bitartean. Urte amaieran ebatzite zeuden mota honetako auzigaien kopurua kontuan hartuta, urtebete baino gutxiagoan, bigarren atalean auzigai horietan dagoen atzerapena hutsera murriztuko litzateke. Horrek organoaren egonkortasun-aldia ahalbidetuko luke neurri estrukturalago bat planteatu arte edo, denbora igaro ondoren, laguntza-neurri berri bat planteatu arte, baina, nolana ere, aurrekontu-aurrezpen garrantzitsua ekarriko luke, Ministerioarentzat ez ezik, kanpoko ordezkapenaren arloko aurrekonturako ere. Izan ere, funtzio-aldaketa dakarren zerbitzu-eginkizuna denaz, zerbitzu-eginkizun horren hartzailearen organoa kanpoko ordezkapenaren bidez bete beharko da.*

*Azaldutakoa kontuan hartuta, uste dut eskatutako neurria dela komenigarriena eta egokiena, indartu beharreko organoaren pendentzia azkarrago murrizteko aukera ematen baitu, eta, beraz, salbuespenezko laguntza-neurriaren iraupena laburragoa da.*

## PROPOSAMENA

GIPUZKOAKO PROBINTZIA AUZITEGIKO BIGARREN ATALAK ESKATUTAKO ERREFORTZU-NEURRIA ONARTZEA. NEURRI HORI SEI HILABETEKO ZERBITZU-EGINKIZUN BAT IZANGO DA, FUNTZIO-ALDAKETAREKIN, ETA HILEKO 50 AUZIGAIEN ARDURA HARTUKO ETA EBATZIKO DITU, BANKETXEEN ETA KONTSUMITZAILEEN ARTEAN SINATUTAKO HIPOTEKA-MAILEGUAK KONTRATATZEKO BALDINTZA OROKORREN PROZEDURA ARRUNTEN APELAZIOARI BURUZKOAK.

Osoko Bilkurak, eztabaidatu ondoren, eta proposatutako neurriaren eraginkortasuna kontuan hartuta, ponentziaren edukia onartzen du, eta, ondorioz, ERABAKI DU Gipuzkoako Probintzia Auzitegiako Bigarren Atalak eskatutako errefortzu-neurria onartzea, hau da, funtzio-aldaketa duen zerbitzu-eginkizun bat, honako oinarri hauen arabera:

Lehenengoa.- Eskaintzen den laguntza judizialeko neurriaren definizioa.

Gipuzkoako Probintzia Auzitegiako Bigarren Atalerako zerbitzu-eginkizuna, funtzio-aldaketarekin

Bigarrena.- Jarduera-plana.

Sei hilabetez, hilabetero 50 auzigaien ardura hartuko du eta ebatziko ditu, banketxeen eta kontsumitzaileen artean sinatutako hipoteka-maileguak kontratatzeke baldintza orokorren prozedura arruntan apelazioari buruzkoak.

Hirugarrena.- Neurriaren iraupena.

Zerbitzu-eginkizunaren hasiera-data Kontseiluak onartzen duen unetik aurrera zenbatuko da, eta sei hilabeteko aldi bakarrean.

Laugarrena.- Lehentasunezko egokitasun-irizpideak.

1. Eskatzaile bat baino gehiago egonez gero, gobernu-salak proposatuko ditu, lehentasunez, egokienak iruditzen zaizkionak, eta inguruabar hauek baloratuko ditu:

- a) Epaile edo magistratu eskatzailea indartu beharreko epaitegi edo auzitegiaren jurisdikzio-ordena berekoa izatea. Lehentasunezko meritua gisa baloratuko da espezialitatea egiaztatzea eta, halakorik ezean, jurisdikzioan zortzi urte eman izana deialdi honen aurreko hamabi urteetan, BJLOren 330.2 artikulua ezartzen duenaren arabera.
- b) Eskatzailearen helmugako lekua eta distantzia.
- c) Titularra den organoaren egoera.
- d) Zerbitzu-eginkizuna burutuko den autonomia-erkidegoko zuzenbidea edo hizkuntza eta zuzenbide substantiboa ezagutzea.

Aurreko irizpideen balorazioa batera egingo da, eta horiek azaltzeko jarraitu den ordenak ez du lehentasunik emango batzuen eta besteen artean.

2. Aurreko inguruabarrak batera baloratzeak eskatzaileen artean diferentzia nabarmenik ez badakar, beste inguruabar batzuk ere baloratu ahal izango dira, hala nola lanbide-antzinatasuna, neurriaren xede den izaera bereko edo antzeko organoetan jardutea, organoaren berezko gaiei edo organoaren egoerarako garrantzitsuagoak diren gaiei buruzko prestakuntza espezifikoak, argitalpenak eta epaile laguntzailearen ardura izango diren gai eta auzigaiekin zerikusia duten bestelako merezimendu profesionalak.



Familia-bizitza uztartzeari buruzko inguruabarrak ere kontuan hartu ahal izango dira.

Irizpide horien balorazioa ere batera egingo da, azalpenerako jarraitutako ordenak batzuen eta besteen artean lehentasunik ezarri gabe.

Bosgarrena.- Eskabideak formalizatzea: modua, tokia eta epea.

Epaile eta magistratu interesdunek eskaera gobernu-kudeaketako aplikazioaren bidez egin beharko dute.

**Eskabideak aurkezteko epea ekainaren 12an amaituko da, egun hori barne.**

Seigarrena.- Deialdiaren publizitatea.

Botere Judizialaren Lege Organikoaren 216 bis 3.1 artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik, eta Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren 2007ko azaroaren 13ko Batzorde Iraunkorraren 69.2 erabakia betez, argitara bedi eskaintza hau, eta kopia bat bidali Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiari, epaileen eta magistratuen web-orriaren Estranetean sar dezan, 2007ko azaroaren 29ko Batzorde Iraunkorraren 30 zk.ko erabakian aurreikusitako moduan.

## **6.- Bestelako gaiak**

### **6.1.- JARDUN JUDIZIAL DIGITALEN KATALOGOA.**

Eusko Jaurlaritzako Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailak bidalitako komunikazioaren berri eman zaio Salari, zeinaren bidez Justiziako Intranetean Jarduketa Judizial Digitalen Katalogoaren proposamena argitaratu dela jakinarazi baita, eta honela dio hitzez hitz:

*“Katalogoak modu digitalean gara daitezkeen jarduketa judizialak eta zein jurisdikziotan kokatzen diren zerrendatzen ditu. Hurrekotasun digitalarekin egin daitezkeen ekintzen zerrenda horri esker, esku hartzen duten operadoreei jardueratutuinguru homogeen bat eskaini dakieke.*

*Informazio hori Euskadiko Justizia Administrazioako kidegoen artean ahalik eta lasterren zabaltzea eskatzen dugu, eta, nahi izanez gero, zuen ekarpenak guri helaraztea.*

*Proiektuaren arduraduna den Jule Agirretxe Barandikarekin jar zaitezke harremanetan ([agirretxe.j@justizia.eus](mailto:agirretxe.j@justizia.eus)).*

*Halaber, jarduketa telematiko batean parte har dezaketen kolektiboen artean EpaiDigitala ezagutzera emateko, [dibulgazio-bideo](#) bat egin da, proiektu horren irismena jasotzen duena.*

*Gogorarazten dizugu [EpaiDigitala proiektuari buruzko informazio](#) guztia argitaratuta dagoela Justiziako Intranetean.”*

Sala jakitun geratu da, eta Avantius-en hurrengo Jarraipen Batzordean eztabaidatuko denaren emaitzaren zain geratu da, bereziki Sala Digitalen aurrekontuei eta baldintzei dagokienez.

## **6.2.- AVANTIUS PROGRAMA.**

Presidente jaunak Avantius-en Jarraipen Batzordeak 2024ko apirilaren 18an egindako bileraren edukiaren berri eman dio osoko bilkurari. Bilera horretan, hitzartutako ekintzen egoera eta aplikazioaren, konfigurazio estatistikoko taldeen, espedienteak artxibatzearen eta Auzitegi Gorenari espedienteak bidaltzearen inguruko hobekuntza-arloak aztertu ziren.

Judizio azkarretako agendetako hobekuntzei ekin zitzaion, Bilbon judizio azkarren agenda blokeatzeko aukera emango dutenak, gutxienez 6 tarte utziz poliziaren erreserbarako. Gainerako organo judizialek ezin izango dute agenda blokeatu, baina konfigurazio hori Epaileen Batzarraren erabakiz aldatu ahal izango da.

Era berean, Gipuzkoarako etengabeko prestakuntza-plana eta Avantius-en 5.4 bertsioa instalatzeko datak onartu ziren.

## **6.3.- ARARTEKOAREN ETA GOBERNU-SALAREN ARTEKO BILERA.**

Arartekoaren komunikazioaren berri eman zaio Salari. Horren bidez, bi erakundeen artean bilera bat egiteko aukera iradoki da, baita gai-zerrenda osatzeko izan litezkeen gaien zirriborro bat ere:

*“Erakundeen arteko beharrezko lankidetzak eman dadin aldiro biltzeko ohiturari jarraituz, eta Gobernu Salarekin bilera hori egiteko ekainaren 21eko data (orduaren zain) adostu ondoren, idatzi egiten dizut, sakontasun-maila desberdinekin landu nahiko genituzkeen gai handien zirriborro bat proposatzeko. Hori guztia, jakina, zuen ustez bilera horretako gai-zerrenda finkatzeko bidezkotzat jotzen dituzuen gaiei kalterik egin gabe:*

*1. Erakundeen arteko lankidetzak.*

*2. Justizia Administrazioaren funtzionamendua: Bi erakundeen intereseko espazio komunak, Justizia Administrazioaren zerbitzuaren kalitatea hobetzeko. Gobernu Salak mahaigaineratu ditzakeen gaiak, Arartekoaren 2023ko urteko txosteneko justiziaren kapituluak jorratutako gaien inguruan.*

*3. Arartekoaren lana zerbitzu judizialei dagokienez:*

*- Espediente judizial elektronikoaren hedapena eguneratzea. Ofiziozko abokatuek Arartekoari aurkeztutako kexak, Avantius sistema ezarri zenetik abuztuaren jakinarazpenak jasotzeagatik.*

*- DICIREG sistema - erregistro zibil elektronikoaren ezarpena eguneratzea. Aurretiazko hitzorduen arazoa Bilboko, Donostiako eta Barakaldoko erregistro zibiletan.*

*4. Euskarak justizian duen egoera. Arartekoa Hizkuntza Gutxituen Europako Gutuneko adituen batzordearekin bildu zen Espainiara egindako bisitan, Iruñean, iazko ekainaren 18an.*

*5. Sor daitezkeen beste gai batzuk.*

*Bilera horretara erakundeko kide hauekin joango litzateke: Ines Ibañez de Maeztu, arartekoaren ondokoa; Faustino Lopez de Foronda, idazkari nagusia; Inmaculada de Miguel, Gizarte Harremanen, Azterlanen eta Modernizazioaren zuzendaria; Elena Ayarza, Haur eta Nerabeen Bulegoko zuzendaria, eta Roberto Moreno, Justiziaren eta Espetxean dauden Pertsonen arloko arduraduna.*

Salak egokitzen jotzen du ekainaren 21ean egingo den Arartekoaren eta Auzitegi Nagusiko Gobernu Salaren hurrengo bilerarako proposatutako gai-zerrenda.  
Helaraz bedi erabaki hau Arartekoari.

## **ERABAKIAK JAKINARAZTEA.-**

Osoko Bilkurak aho batez erabaki du bilera honetan hartutako erabakiak interesdun guztiei jakinaraztea.

Aztertzeko beste gairik ez dagoenez, amaitutzat eman da 11:00etan hasi eta 13:30ean amaitu den bilera, eta lehendakari jaunak sinatu duen akta hau egin da. Fede ematen dut.